

IKASTETXEKO DIAGNOSTIKOA 2011-2012

Bioaniztasuna ezagutzeko jarduera batzuk burutuko ditugu eta horien bidez iazko diagnostikoan finkatutako proposamen eta konpromisoen jarraipena egingo dugu.

Hauek dira jarduerak :

1.-Irten berdegunera edo atarira eta inguruan duguna behatu bertan dauden bizidun espezie ezberdinez jabetu: zuhaitz, zuhaixka, landare belarkara eta animalia ezberdinak.

Kontutan izan askotan nahiz eta lehenengo begiratuan ez ikusi, gure ikastetxeko horma, zuhaitz, zelai eta txokoetan bizidun asko daudela,intsektuak, liken, goroldi..e.a.

Bestalde, paseoa ematerakoan garrantzizkoa da baita ere animalien soinuak entzutea, landareak usaintzea eta hitz batetan naturaz gozatzea.

Behaketa egiten duzun bitartean **bete ondoko galdetegia.**

GALDETEGIA

A-Nolakoa da ikastetxeko ingurunea.?

1-Inguruko erabilera nagusiak (ikastetxetik ikusten duzuna). Gehienez hiru mota markatu:

- Nekazaritza-abeltzaintza.
- Industria.
- Berezko egoeran dagoen eremua
- Hiri-erabilera
- Basogintza
- Aisialdiko lekua
- Bide-azpiegiturak

2-Ikastetxeko hesia landareez egina al dago?

B-Ikastetxeko berdegunearen landarediaren deskribapena.

1- Zein da berdeguneetako landaredi nagusia?

- Belardia
- Sasitza
- Zuhaitzak
- Goroldioa
- Laborantza

C-Bizidunen aniztasuna

1-Aipa itzazu berdeguneetan dauden zuhaitzak, zuhaixka eta beste landare batzuk.

2- Aipatutako zuhaitzetatik zeintzuk dirá autoktonoak?

3-Aipa itzazu animaliak. Berdegunean ikusi, entzun edo inguru honetan bizi daitezkeela dakizunak.

Animaliak aipatzean pentsatu talde ezberdinetan: ugaztunak, hegazti, intsektu e.a

D-Zure iritzia

- Berdeguneen azalera nolakoa da
 - Handia
 - Txikia
 - Oso txikia
 - Ez dago

- Berdeguneak ikasleentzat erabilgarriak al dira?
 - Bai
 - Ez

- Ikasleek aprobetxatzen al dituzte berdeguneak?
 - Bai
 - Ez

- Atsegin al zaizu ikastetxean zuhaitzak egotea . Baloratu 1etik 5era

- Egin ikastetxeko bioaniztasunaren balorazioa. Zer ondorio atera ditzakegu:

IKASTETXEKO ZUHAITZAK IDENTIFIKATZEA

Iazko diagnostikoan lortutako emaitzetatik abiatuta, ikastetxeke argazkitik (argazkia koloreetan eta zenbakiekin) eta zuhaitz irudiak emanda (zuri beltzekoak eta izenekin) identifikatu argazkian dauden zuhaitz nagusiak.

Gela bakoitzean 5 edo 6 talde egingo dira eta talde bakoitzari 3 zuhaitz emango zaizkio identifikatzeko.

IKASTETXEKO BIOANIZTASUNAREN LABURPENA

Ondoren zuhaitz horien informazioa aurkitu behar dugu, horretarako ikasle bakoitzak ikastetxeke zuhaitz edo animalia baten gaineko informazioa aurkitu beharko du.

Aurkitutako informazioa power point batean antolatu irudi eta argazkiak sartuz.